



JAIO BERRIAK: GOMENDIO OROKORRAK

- Elikatu zure jaioberria bularra emanda eta haurtxoak eskatu ahala
- Ez dugu txupeterik erabiltzea gomendatzen edoskitzea ongi ezarri arte. Ez eskaini ez tetinarik ezta azukredun txupeterik ere.
- Edozein manipulazio egin aurretik, garbitu eskuak ur eta xaboiarekin.
- Sukarra edo katarroa duten pertsonekin harremantzea saihestu, erabili maskaraxoa, eztula, errinitisa eta abar egonez gero.
- Zilbor hestea garbi eta lehor mantendu.
- Ez utzi inoiz haurtxoa bakarrik eta eutsi gabe (ohe gainean, haur alda-lekuaren gainean, bainuontzian etab)
- Neurtu bainu-ontziko uraren temperatura ukondoarekin (34-36°C).
- Haurtxo jaioberria ahoz gora lo egitea gomendatzen da.
- Lotarakoan, saihestu arropa gehiegi jartzea edo eta kuxinak edo koltxoi bigunak sehaskan. Saiatu logelako hozberoa atsegina izatea. (20-22°).
- Ez erabili osagarri arriskutsuak dituen arroparik (lokarriak, ponpoiak..) ezta lepokorik ere.
- Kerik gabeko eremuak gomendatzen dira: saihestu etxean erretzea. Pasieran irteten zarenean, saihestu jende-andana handiak.
- Haurtxoa euste sistema homologatuen bidez garraiatu behar duzu.

Gida: Bularra ematen duten amentzat



Osasun gida. Otik 6 urte bitartera.

